

ESKORIATZAKO JAIETAKO BARRAKEN ETA FERIAKO ATRAKZIOEN INSTALAZIOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Barrakak eta feriako atrakzioak Eskoriatzako jaietako funtsezko elementu bat dira. «Sanpedroak» ez lirateke gauza bera izango herritar askorentzat, haurrentzat bereziki, era askotako aparatu eta instalazio horiek gabe. Festen nortasunaren funtsezko osagai eta bereizgarri dira, eta horiekin zerikusia duen guztiak interes publiko berezia hartzen du. Are gehiago udal administrazioaren espazio publikoan kokatzen badira eta, bistan denez, espazio hori ezin bada beste ezertarako erabili barrakak eta atrakzioak jarrita dauden bitartean.

Hala ere, Udalak ez du horien instalazioa alderdi guztiak kontuan hartuta erregulatuko duen araurik; hau da, espazioa okupatzeko tasa edo prezio publikoa (beste ordenantza batek jadanik arautzen duena) edo beste araudi batzuetan espresuki aginduta daudelako bete beharrekoak diren alderdi jakin batzuetatik harago, garrantzitsuak diren alderdi batzuk arautuko dituen, esate baterako, honako hauek: administrazioaren baimena nork eska dezakeen; instalazioen artean ezarritako espazioa nola banatzen den; asmo berarekin egindako eskaera bat baino gehiago badago, eskaintza onuragarriena aukeratzeko prozedura zein den; espazioa erabiltzeko baldintzak zein diren; zein eratako arau-haustek zigortzen diren eta nola, eta aztertzen ari garenaren antzeko jardura baten araubide juridikoa taxutzen duten gainerako alderdiak.

Izaera honetako arau baten gaikuntza juridikoa oso presente dago Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan, «auzotarren beharrak asebeteko dituzten jardura nahiz zerbitzuen sustapenari» buruzkoan, eta 139. artikuluan, «kultur eta kirol jarduerak, aisialdiaren okupazio edo turismoari» buruzkoan, bai eta horiekin bat datozen beste arau batzuetan ere. Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueri buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 28. artikulua arabera, «udal lizentzia edo baimena» behar dute, «ikuskizun eta aisialdiko jarduerak egiteko behin-behinekoak, eramangarriak edo desmontagarriak diren instalazioek edo egiturek»; era berean, 30. artikulua berariaz xedatzen duenez, «barrakak eta azoketako atrakzioak jartzeko baimena horiek jartzen diren tokiko udalak emango du», eta artikulua ikuskizunak eta aisialdiko jarduerak bide edo espazio publikoetan egiteko baimena udal araudiaren mende uzten du, espazio publikoaren erabilera bereziari edo pribatiboari buruzkoa dena.

Beste zenbait artikuluk, 37., 41. eta 62.ak esaterako, eskumenak eta gaikuntza titulua ematen dizkiote Udalari zaintza eta kontrol lanak egiteko eta zigorrak jartzeko. Hori guztiori oinarri da ordenantza honetarako.

Arau honek barraka eta atrakzioen instalazioa sustatu nahi du hurrek eta nagusiek goza ditzaten. Ez du antolamendu murriztailea izateko asmorik, baizik eta asmo bikoitza: alde batetik, atrakzio eta barraketako langileei beren jardura egiten uztea, eta, bestetik, erabiltzaile eta kontsumitzaileen eskubideak nahiz jarduerarekin zerikusirik ez duten pertsonen eskubideak bermatzea.

Ordenantza hainbat titulu, kapitulu eta artikulutan egituratzen da, xedapen orokor batzuetatik abiatuz honako hauek arautzeko: instalazio eskaerak, baimenak ematea, baimenen esleipendunen betebeharrak, segurtasun neurriak, musika, errotulazioak, irudiak, hondakinen kudeaketa, azoka barrutiko ibilgailuen zirkulazioa, kautelazko neurriak eta zehapen prozedura.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Ordenantza honen helburua da Eskoriatzako San Pedro jaietan, horretarako prestatutako esparruan barrakak eta azokako atrakzioak nola jarri arautzea. Hala ere, ordenantzaren xedapen batzuk aplikatu ahal izango dira hala eskatzen duten antzeko kasuetan. Gainera, ordenantza honetan arautzen dira esparru horretan baimendutako eta baimendu gabeko erabileren nahiz jardueren gaineko kontuak.

2. artikulua

Eskoriatzako Udalak barrakak eta azokako atrakzioak jartzeko baimena emango du urtero Alkate erabakiz.

3. artikulua

Alkate erabaki horrek barrakak eta atrakzioak noiztik nora jarri eta jardueren ordutegiak finkatuko ditu, eta baita ordenantza honetan xedatutakoa garatzeko hartu beharreko xedapen guztiak ere.

4. artikulua

1. Jaietan barrakak edo azokako atrakzioak jartzeko espazio publikoa esleitu zaienek Eskoriatzako Udaleko Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantzan xede horretarako finkatutako prezio publikoa ordaindu beharko dute.
2. Barraketan, % 100erainoko hobaria aplikatu ahal izango da lurzoru publikoa erabiltzeagatik tasan, atrakzioek publikoarentzat Udalak proposatutako salmenta-prezio murriztuak aplikatzen dituztenean.

II. TITULUA

BARRAKAK ETA ATRAKZIOAK JARTZEKO ESKAERAK

5. artikulua

Barraka edo azokako atrakzio bat jartzeko eta azokako esparruan espazioa okupatzeko eskatu ahal izango dute pertsona fisikoek edo legez eraturako pertsona juridikoek, betiere, Eskoriatzako Udalarekin betearazpen-aldian zorrik ez badute, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean badituzte eta administrazio zehapen irmorik jaso ez badute toki, autonomia erkidego edo estatu mailan aplikatu beharreko araudiari arau hauste oso larria egiteagatik, antzeko esparruetan bi arau hauste larri egiteagatik edo hiru arau hauste arin egiteagatik. Eskatzaileak zigor penalen bat jaso izan balu, bertan xedatutakoa beteko da. Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaerak automatikoki ezetsiko dira.

6. artikulua

Eskaerak Eskoriatzako Udaleko HAZIn (Fernando Eskoriatza plaza 1) aurkeztu beharko dira edo Administrazio Prozeduraren Legean edo gainerako araudi aplikagarrian jasotako edozein bide erabiliz.

7. artikulua

1. Eskatzaileak jarri nahi duen atrakzio edo barrakaren ezaugarriak adierazi beharko ditu (bereziki, neurriak), eta eskaerarekin batera, ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- a) Eskatzailea identifikatzeko dokumentua.
- b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko ziurtagiriak.
- c) Erantzukizun zibileko asegura kontratatu izanaren dokumentua (poliza eta azken ordainagiria).
- d) Janariak saltzeko, elikagaien manipulatzaile txartela (hala bada gokia).
- e) Instalazioaren urteko azterketaren ziurtagiria, funtzionamendurako egokia dela egiaztatzen duena.
- f) Su itzalgailuak aztertzeko eta mantentzeko ziurtagiria, segurtasun araudiak hala eskatzen duenean.
- g) Gas horniduraren edo, hala bada, beste edozein erregairen instalazioari buruz instalatzaile ofizialak egindako urteko azterketaren ziurtagiria.

2. Instalazioa muntatu aurretik, eskatutako egunetarako enpresa elektrikoarekin barrakentzat zein etxebizitzentzat egindako kontratua aurkeztu beharko da.

3. Instalazioa ireki aurretik, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) 1. Sexu-delituen ziurtagiria: -Azoka-esparruan nahitaezkoa izango da jendaurrean lan egiten duten langile guztiek, instalazioa ireki baino 5 egun lehenago, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa, sexu-izaerako deliturik ez dagoela egiaztatzen duena edo, hala bada gokia, Udalarari kontsulta hori egiteko baimena ematen diona (8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa) aurkeztea. Ziurtagiri horrek gehienez 6 hilabeteko antzintasuna izan beharko du.

2. Atzeritarren kasuan, Udalak ezin duenez kontsulta hori egin, ziurtagiria aurkeztu beharko da.

b) Barraken kasuan, muntaketa amaierako ziurtagiria.

III. TITULUA.

INSTALAZIO BAIMENAK EMATEA

8. artikulua

Horretarako ezarritako esparruan barrakak eta azokako atrakzioak jartzeko Eskoriatzako Udalaren baimena beharko da aurrez.

9. artikulua

Eskoriatzako Udalak azoka esparruan dagoen espazioa banatuko du, jar daitezkeen atrakzio kopurua eta horien gehieneko neurriak finkatuz, eta atrakzioen banaketa zehaztuz.

10. artikulua

Aurreko artikuluan ezarritakoa betez espazio erabilgarria baino eskaera gehiago daudenean, kontuan hartuko dira Eskoriatzako jaietan egondako urteak kategoria bereko barraka edo atrakzioekin.

11. artikulua

Baimena baliozkoa izan dadin, barrakak edo atrakzioak eta etxebizitzak instalatzeko baimena jakinarazi baino gutxienez 5 egun lehenago, esleipendunek esleitutako espazioa okupatzeagatiko prezioa ordaindu beharko dute erabakian adierazitako banku-kontuan, eta ordainketa horren egiaztatzea aurkeztu beharko dute. Epe horretan ordainduko ez balu, eskatzaileak bere eskaeran atzera egiten duela esan nahiko du.

IV. TITULUA

ESLEIPENDUNEN BETEBEHARRAK

12. artikulua

1. Esleipendunek beraien barraka edo atrakzioa udal langileek adierazitako epean jarri eta kendu beharko dute. Horretarako, baimenean adieraziko da jarraitu beharreko egutegia.
2. Azokako barrakak edo atrakzioak muntatzen diren bitartean, une oro barraka edo atrakzio bakoitzeko ordezkari bat egon beharko da, udal-langileek egindako edozein errekerimenduren aurrean erabakiak hartzeko nahikoa autoritate izango duena.
3. Atrakzioak edo barrakak azoka-esparruan egon beharko dira baimendutako aldi osoan.

13. artikulua.

1. Finkatutako prezio publikoa ordaindu beharko dute esleipendunek 11. artikuluan ezarrita bezala; halaber, 300 euroko fidantza bat jarri beharko dute espazio publikoan edo Udalaren beste ondasun batzuetan eragin ditzaketen kalte galerak ordaintzeko, edo esleipendunek azoka-esparrua Udalak jarritako epea baino lehenago uzten duten edo barrakak eta azokako atrakzioak instalatzeko erabakian jasotako baldintza guztiak betetzen ez dituzten kasurako.
2. Fidantza gehienez ere bi hilabeteko epean itzuliko zaie interesdunei instalazioa desmuntatutako egunetik zenbatzen hasita, salbu eta Alkate erabaki batek, aurrez txostena teknikoa jasota eta interesdunari entzunaldi tramitea eskainita, fidantza osorik edo zati batean konfiskatzea bidezkoa dela ezartzen badu.

14. artikulua.

Erabat debekatuta dago eduki sexista, xenofoboa, politikoa, erlijiosoa, etnikoa edo pertsonen duintasunaren aurka doan beste edozein eduki duen iragarki, erakusketa, propaganda edota publizitatea, bai azoka-esparruan, bai etxebizitza-eremuan. Azaldutako edukia iraingarritzat jotzen bada edo duintasun horren aurka egiten badu, dagokion enpresaren erantzukizuna izango da eduki horiek estaltzea.

15. artikulua.

Esleipendunek jendaurrean izan beharko dute beren produktu edo zerbitzuen prezioen zerrenda.

16. artikulua.

Esleipendunek herritarren egun bat izendatu dezakete, eta egun horretarako Udalarekin adostutako prezioa izango da azokako aparatu eta atrakzio guztietan erabiliko dutena.

17. artikulua.

1. Esleipendunek dagozkien kontratuak sinatu beharko dituzte beren instalazioetarako argi-hornitzaileekin, eta beraiek ordaindu beharko dituzte hornitzaileek kontzeptu horiengatik egiten dituzten fakturak. Instalazioa hornidura-iturriekin konektatzeko eta deskonektatzeko lanak enpresa hornitzaileak gainbegiratu ditu. Interesdunek Udalean egiaztatu beharko dute kontratuak sinatu dituztela eta instalazio elektrikoaren buletinak aurkeztu beharko dituzte.

2. Eskatzailearen kontura izango dira kudeaketa guztiak zein aparatuen eta azokaren funtzionamendurako instalazioen beharren kostuak eta instalazio elektrikoarenak etxebizitzetan.

18. artikulua.

1. Hornidura-sareko ur-hartune bat behar duten esleipendunek aldeztu beharko dute, bakoitzak bere aldetik.

2. Ezingo da hodorik jarri lurgainean, eta bide publikoan ezingo da kutxatilarik zabalik edo estali gabe utzi. Salbuespen gisa, eta okupatutako espazioan bertan ur-hartunerik eta hustubiderik ez dagoen kasuetan, lurgaineko hodiak instalatzeko baimena emango da, baldin eta behar bezala estaltzen eta seinatzen badira jendearen irisgarritasuna ez oztopatzeko eremu horretan. Erabat debekatuta dago ur-hornidura sareko balbulak manipulatzeko. Hori, baimendutako langileek bakarrik egin ahal izango dute.

19. artikulua.

Esleipendunek onartu eta bete egin beharko dituzte udaltzainek edo beste udal-teknikari batzuek azoka-esparruaren segurtasuna eta osasungarritasuna bermatzeko emandako jarraibideak.

20. artikulua.

Esleipendunek Udalak esandako epean desmuntatu beharko dute instalazioa. Okupatutako espazioa instalazioa jarri zenean zegoen baldintza berberetan utzi beharko da, eta bertako segurtasuna eta osasungarritasuna bermatuko dira.

21. artikulua.

Berariaz debekatuta dago esleitutako espazioaren mugak gainditzea, dela barrakarekin, dela atrakzioarekin, dela elementu gehigarriekin, publizitatekoak barne. Barruko kaleak eta oinezkoen igarobideak ere ezingo dira okupatu. Era berean, berariaz debekatuta dago edozein motatako produktuak saltzeko makinak instalatzea Udalaren aurretiazko berariazko baimenik gabe, baita putching ball edo antzeko elementuak jartzea ere.

22. artikulua.

1. Esleipendunek zorrotz bete beharko dituzte laneko segurtasun- eta higiene-arauak, bai eta elikagaiak eta edariak saltzeari buruzko higiene- eta osasun-arauak ere, hala badagokio. Bereziki, sortzen dituen hondakinak biltegitratzeko adinako ontziak izan beharko ditu instalazio bakoitzak. Ahal den neurrian, zaborra jendearen bistatik kanpo biltegitratuko da garbiketaz-erbitzuek eraman arte.

2. Etxebizitzak instalatzeko eremua eta ingurua bereziki zainduko dira, eta uneoro garbi mantendu beharko dira.

23. artikulua.

1. Erabat debekatuta dago animalia bizi edo diseatu oro saltzea eta zozkatzea azoka-esparruan, Etxeko animaliak babesteari buruzko ekainaren 30eko 9/2022 Legean eta Animalien eskubideak eta ongizatea babesteari buruzko martxoaren 28ko 7/2023 Legean xedatutakoak aplikatuz. Era berean, bertan dagoen edozein animalia behar bezala tratatu beharko da.

2. Berariaz debekatuta dago sari bezala material pornografikoa eta era guztietako suziriak, petardoak, bolak jaurtitzeko pistolak, labanak eta antzekoak ematea, bai eta tabakoarekin eta alkoholarekin lotutako elementuak ere.

V. TITULUA

SEGURTASUN ARAUAK

24. artikulua.

Azokako barrakek eta atrakzioek indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen segurtasun-, higiene- eta osasungarritasun-baldintzak bete beharko dituzte.

25. artikulua.

Azokako barrakek eta atrakzioek Eraikuntzaren Kode Teknikoaren SS OD (suteetarako oinarrizko segurtasun-agiria) bete beharko dute.

26. artikulua.

Makinariak, egiturek eta atrakzioek UNE-EN 13814:2006 arauan xedatutakoa bete beharko dute, edo instalazioa jartzerakoan indarrean dagoena.

27. artikulua.

Barrakaren batek gasezko sukaldia badu, gas instalazioen oinarrizko arauetan eta aplikatu beharreko gainerako arauetan xedatutakoa bete beharko du. Gas bonbonak ez dira egongo eguzkitan egunez edo edozein bero-fokutatik hurbil.

28. artikulua.

Berariaz debekatuta dago bilgarriak, kutxak, kartoiak eta beste edozein material sukoi sukaldetik gertu biltegiatzea.

VI. TITULUA

SOINUAK ETA ERROTULAZIOAK

29. artikulua.

1. Espekto autistako nahasmenduak edo asaldura neurosensorialak dituzten haurrek jai herrikoietan parte har dezaten sustatzeko, esleipendunek barraketako musika eta mota

guztietako soinuak (sirenak, bozinak eta abar), eta azokako atrakzioak isilarazi beharko dituzte elkarrekin adostutako ordu eta egun batzuetan. Adostasunik ez badago, Udalak ezarriko ditu egunak eta orduak.

2. Jai-egitarauan azoka-esparrutik datorren musikarekin bateraezinak diren ekitaldiak badaude, ekitaldi horiek irauten duten bitartean musikaren bolumena jaisteko edo kentzeko aginduko du Udalak.

3. Euskararen erabileran eragiteko, bereziki haurren eta familien artean, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Errotulazioa.

Barraka, atrakzio edo salmenta-postuen errotulazio osoa euskaraz edo ele bitan (euskaraz/gaztelaniaz) izan beharko da. Errotulazio elebiduna aukeratzen bada, euskarari emango zaio lehentasuna. Errotulazioa euskaratzeko laguntza behar izanez gero, Eskoriatzako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza jaso ahal izango da.

b) Musika.

Jarritako musika euskaraz izan beharko da % 75ean. Gainera, ezingo dira emakumeentzat iraingarriak diren abestiak jarri, ezta gizalegezkoak ez diren jokabideak sustatzen dituzten letrak dituztenak ere. Puntu honetan jasotakoa errazteko asmoz, hainbat playlist eskainiko dira.

VII. TITULUA.

HONDAKINEN KUDEAKETA.

30. artikulua.

Hondakinen kudeaketari dagokionez, aplikatu beharreko araudia bete beharko dute esleipendunek etxebizitzetarako egokitutako lekuan zein azoka-esparruan.

31. artikulua.

Landare-olio erabilia hondakin gisa sortzen duten jarduera guztiek kudeatzaile baimendu bat izan beharko dute hondakinak kendu eta kudeatzeko. Berariaz debekatuta dago mota horretako hondakinak uztea edo isurtzea.

32. artikulua.

Hondakin arriskutsuen kudeaketak zorrotz jarraituko dio aplikatu beharreko araudian xedatutakoari. Udalak zirkulazioa eragozten duen edo herritarrentzat arriskutsua gerta daitekeen utzitako edozein objektu erretiratuko du, eta sortutako gastu guztiak jabearen edo utzi duenaren kargu geratuko dira.

VIII. TITULUA.

IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA ESPARRUAN ETA BERE INGURUAN

33. artikulua.

1. Berariaz debekatuta dago ibilgailuak azoka-esparruan aparkatzea eta bertatik zirkulatzea. Salbuespen gisa, muntatze- eta desmuntatze-aldietan, horiek egiteko behar diren ibilgailuak sartu ahal izango dira.

34. artikulua.

1. Karabanak eta etxebizitza mugikorrek horretarako prestatutako lekuan jarriko dituzte baimendutako azokako langileek. Kamioiak, turismoak eta beste edozein ibilgailu ibilgailuak aparkatzeko lekuetan aparkatu beharko dira, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorreko eta Trafikoko Udal Ordenantzako xedapenak betez.

2. Salbuespen gisa, baimena eman ahal izango zaie udalerrian bizilekurik ez duten instalazio edo barraken titularrei azoka-esparruan edo erantsitako lurzatietan karabana-etxebizitza aparkatzeko, betiere beste erabiltzaileei kalte handirik eragiten ez bazaie.

3. Edozein kasutan, atoi independenteak mugitzeko behar diren trakzio-elementuetako bat ere ezin izango da barrutian geratu, soilik atoiak.

IX. TITULUA

KAUTELAZKO NEURRIAK

35. artikulua.

Dagozkion zehapen-prozedurak alde batera utzita, emandako baimena baliogabetu eta instalazioa kautelaz itxi ahal izango du Udalak, segurtasun edo osasungarritasun publikoko arrazoiek hala gomendatzen dutenean. Neurri horiek bereziki arrazoitu beharko dira, eta indarrean izango dira neurri horiek hartzeko arrazoiak desagertu arte.

X. TITULUA

ZEHAPEN-ARAUBIDEA

36. artikulua.

1. Eskoriatzako jaietan barrakak edota azoka-atrakzioak jartzearen ondoriozko arau-haustekak eta zehapenak Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren 10/2015 Legean, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

2. Eskoriatzako Udalak ahalmena du Ordenantza honetan jasotako baldintzaren bat, jarduerari zein titularrari dagokionez, ez betetzeagatik urte 1etik 3 urtera arte azoka-esparruan sartzeko debekuekin zigortzeko.

AZKEN XEDAPENA

Lehena: Ordenantza honetan aurreikusten ez denerako, aplikagarri den tokiko, autonomiako edo estatuko araudian ezarritakoa bete beharko da.

Bigarrena: Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta 15 egunera sartuko da indarrean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 eta 70.2 artikuluekin bat etorriz, eta indarrean jarraituko du berriaz aldatu edo indargabetu arte.

ORDENANZA REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE BARRACAS Y ATRACCIONES DE FERIA EN LAS FIESTAS DE ESKORIATZA

Las barracas y atracciones de feria son un elemento fundamental en las Fiestas de Eskoriatza. Los «San Pedros» no serían lo mismo para muchos vecinos y vecinas, especialmente para los de edad infantil, sin la presencia de los diferentes aparatos e instalaciones. Si son un ingrediente consustancial a las fiestas y definitorio de su personalidad, reviste especial interés público todo lo que tiene que ver con ellas. Más aún si se ubican en espacio público de administración municipal y del que, como es obvio, no puede disponerse para otros usos mientras esté siendo dedicado a su instalación.

Sin embargo, el Ayuntamiento carece de una norma que regule su ubicación con vocación omnicompreensiva, que más allá de la tasa o precio público por la ocupación del espacio (a la que ya se refiere otra Ordenanza) o determinados aspectos concretos que deben someterse a lo regulado en otras normas por mandato expreso de las mismas, regule aspectos tan importantes como quien puede solicitar la autorización administrativa, cómo se distribuye el espacio establecido entre las diferentes instalaciones, cual es el procedimiento de selección de la oferta más ventajosa en el caso de que existan solicitudes dirigidas a idéntico propósito, cuáles son los requisitos de utilización del espacio, qué tipo de infracciones se sancionan y de qué modo, y los demás aspectos que configuran el régimen jurídico completo de una actividad como la que nos ocupa.

La habilitación jurídica de una norma de esta naturaleza está sobradamente presente en los artículos 25, «promoción de actividades y servicios que satisfagan necesidades vecinales», competencia sobre «actividades culturales y deportivas, ocupación del tiempo libre o turismo» y 139 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y múltiples otros preceptos concordantes. El artículo 28 de la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas del País Vasco somete a «licencia o autorización municipal», las «instalaciones o estructuras eventuales, portátiles o desmontables para la celebración de espectáculos o actividades recreativas», del mismo modo que el artículo 30 dispone expresamente que «la autorización de la instalación de barracas y atracciones de feria corresponde al municipio donde se instalen» y el 33 remite la autorización de la celebración de espectáculos y actividades recreativas en vías o espacios públicos a la normativa municipal sobre utilización especial o privativa del espacio público.

Otros artículos como el 37, el 41 y el 62 otorgan competencias y título habilitante al Ayuntamiento para la vigilancia, control e imposición de sanciones. Todo ello sirve de fundamento a la presente Ordenanza.

La presente norma pretende promover la instalación de barracas y atracciones para el gozo y disfrute de niños, niñas y mayores. No tiene vocación de ordenación restrictiva, sino que se inspira en la doble vocación de permitir a las personas feriantes y barraqueras ejercer su legítima actividad, al mismo tiempo que se garantizan los derechos de las personas usuarias y consumidoras, por un lado, y los de las personas ajenas a la actividad por otro.

La Ordenanza se estructura en diferentes títulos, capítulos y artículos, que se refieren, a partir de unas disposiciones generales, a las solicitudes de instalación, el otorgamiento de autorizaciones, las obligaciones de los adjudicatarios de autorizaciones, las normas de seguridad, la música, las rotulaciones, las imágenes, la gestión de residuos, la circulación de vehículos en el recinto ferial, medidas cautelares y procedimiento sancionador.

TÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1

La presente Ordenanza tiene por objeto la regulación de la instalación de barracas y atracciones de feria en el recinto que se habilite al efecto durante las fiestas de San Pedro de Eskoriatza, sin perjuicio de la posible aplicación parcial de sus disposiciones a los casos análogos que lo requieran. Asimismo, se regulan en la presente Ordenanza las cuestiones relativas a los usos y actividades permitidos y no permitidos en el citado recinto.

Artículo 2

El Ayuntamiento de Eskoriatza concederá cada año, a través de Resolución de Alcaldía, la autorización para cada instalación de las diferentes barracas y atracciones de feria.

Artículo 3

La citada Resolución de Alcaldía establecerá del mismo modo el periodo de instalación y el régimen de horarios al que deberán ajustarse las actividades que se desarrollen en el recinto, así como cuantas disposiciones sea preciso adoptar en desarrollo de lo dispuesto en la presente Ordenanza.

Artículo 4

1. Las personas adjudicatarias de espacio público para la instalación de barracas o atracciones de feria con motivo de las fiestas deberán satisfacer el precio público establecido al efecto en la Ordenanza de Tasas y Precios Públicos del Ayuntamiento de Eskoriatza.
2. En las barracas, se podrá aplicar una bonificación de hasta el 100% en la tasa por uso del suelo público cuando las atracciones apliquen precios de venta al público reducidos y propuestos por el Ayuntamiento.

TÍTULO II

DE LAS SOLICITUDES DE INSTALACIÓN

Artículo 5

Podrán presentar una solicitud de instalación de barraca o atracción de feria y de ocupación de espacio en el recinto ferial las personas físicas o jurídicas legalmente constituidas, que carezcan de deudas en período ejecutivo con el Ayuntamiento de Eskoriatza, se encuentren al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y no hayan sido objeto de sanción administrativa firme por comisión de una infracción calificada como muy grave a la normativa aplicable a nivel local, autonómico o estatal, por comisión de dos infracciones calificadas como graves en similares ámbitos o tres infracciones calificadas como leves. En caso de que la persona solicitante hubiese sido objeto de sanción penal se estará a lo dispuesto en la misma. Serán automáticamente desestimadas las solicitudes que incumplan estos requisitos.

Artículo 6

Las solicitudes deberán presentarse con al menos 1 mes de antelación en el H@ZI del Ayuntamiento de Eskoriatza (Fernando Eskoriatza plaza 1) o por cualquiera de los medios en que lo permiten la Ley de Procedimiento Administrativo y la demás normativa aplicable.

Artículo 7

1. La persona solicitante deberá señalar las características de la atracción o barraca que desea instalar (en particular sus dimensiones) y acompañar a su solicitud la siguiente documentación:

- a) Documento identificativo de la persona solicitante.
- b) Certificaciones acreditativas de estar al corriente de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social.
- c) Documento de haber contratado el seguro de responsabilidad civil (póliza y último recibo).
- d) Para la venta de alimentos, certificado de manipulador de alimentos (en su caso)
- e) Certificado de la revisión anual de la instalación que acredite que es apta para su funcionamiento.
- f) Certificado de revisión y mantenimiento de extintores, cuando lo exija la normativa de seguridad.
- g) Certificado de revisión anual por instalador oficial de la instalación de suministro de gas o de cualquier combustible (en su caso)

2. Antes del montaje de la instalación, deberá presentarse contrato con la empresa eléctrica para los días solicitados, de las barracas y las viviendas.

3. Antes de la apertura de la instalación, deberá presentarse la siguiente documentación:

a) 1. Certificado de delitos de naturaleza sexual: -En el recinto ferial será obligatorio que todo el personal empleado que trabaje cara al público presente, 5 días antes de la apertura de la instalación, una certificación negativa del Registro Central de Delincuentes Sexuales que acredite la inexistencia de delito de naturaleza sexual o, en su caso, que autorice al Ayuntamiento a realizar dicha consulta (Ley Orgánica 8/2021, de 4 de junio, de protección integral a la infancia y la adolescencia frente a la violencia). Este certificado deberá tener una antigüedad máxima de 6 meses.

2. En el caso de personas extranjeras, dado que el Ayuntamiento no puede realizar esa consulta, será necesario presentar el certificado.

b) En el caso de las barracas, certificado final de montaje.

TÍTULO III

DEL OTORGAMIENTO DE AUTORIZACIONES DE INSTALACIÓN

Artículo 8

La instalación de barracas y atracciones de feria en el recinto establecido al efecto precisará de autorización administrativa previa del Ayuntamiento de Eskoriatza.

Artículo 9

El Ayuntamiento de Eskoriatza establecerá la distribución del espacio existente en el recinto ferial, estableciendo el número y medidas máximas de las atracciones que podrán instalarse y determinando su distribución.

Artículo 10

La adjudicación de espacios cuando existan más solicitudes que espacio disponible conforme a lo establecido en el apartado anterior, se tendrán en cuenta los años de presencia en las fiestas de Eskoriatza con barracas o atracciones de la misma categoría.

Artículo 11

Para que la autorización sea válida, con una antelación mínima de 5 días al de la fecha en que se notifique la autorización para instalar las barracas o atracciones y las viviendas, las personas adjudicatarias deberán hacer efectivo el pago del precio por la ocupación del espacio atribuido mediante abono en cuenta bancaria indicada en la Resolución, presentando el justificante de dicho abono. Si no se hiciera efectivo el abono, se tendrá a la persona solicitante por desistida de su solicitud.

TÍTULO IV

DE LAS OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS ADJUDICATARIAS

Artículo 12

1. Las personas adjudicatarias deberán instalar y retirar su barraca o atracción en el plazo que le indique el personal del Ayuntamiento. Para ello, en la autorización se indicará un calendario detallado a seguir.
2. Durante el montaje de las diferentes barracas o atracciones de feria, en todo momento habrá un representante de cada barraca o atracción con autoridad suficiente para la toma de decisiones ante cualquier requerimiento que le sea transmitido por personal municipal.
3. Las atracciones o barracas deberán permanecer en el recinto ferial durante todo el periodo para el que se les ha concedido la autorización.

Artículo 13

1. Las personas adjudicatarias deberán abonar el precio público establecido, en los términos del artículo 11 y constituir adicionalmente una fianza de 300 euros, para responder de los daños y perjuicios que puedan causar al espacio público o a otros bienes municipales, o en caso de que las personas adjudicatarias abandonen el recinto ferial antes de la fecha indicada por el Ayuntamiento o no cumplan todos las condiciones señaladas en la Resolución para la instalación de barracas y atracciones de feria.
2. La fianza se devolverá a las personas interesadas en el plazo máximo de 30 días hábiles siguientes al de la fecha en que se haya desmontado la instalación, salvo que una Resolución de Alcaldía establezca, previo informe técnico y el correspondiente trámite de audiencia al interesado, la pertinencia de la incautación total o parcial de la misma.

Artículo 14

Está totalmente prohibido el anuncio, exhibición, propaganda y/o publicidad de contenido sexista, xenófobo, político, religioso, étnico o de cualquier otra índole que atente contra la dignidad de las personas tanto en el recinto ferial como en la zona de viviendas. En caso de que el contenido expuesto sea valorado como ofensivo o que atente contra dicha dignidad, será responsabilidad de la empresa correspondiente el tapar dichos contenidos.

Artículo 15

Las personas adjudicatarias deberán tener a la vista del público la lista de precios de sus productos o servicios.

Artículo 16

Las personas adjudicatarias podrán destinar un día a la celebración del día popular, durante la cual todas los aparatos y atracciones feriales observarán un precio establecido de mutuo acuerdo.

Artículo 17

1. Las personas adjudicatarias deberán suscribir los correspondientes contratos con los suministradores de luz a sus instalaciones, corriendo a cargo de las mismas el abono de las facturas que por tales conceptos giren los proveedores. La conexión y desconexión de la instalación respecto de las fuentes de suministro solo podrá realizarse bajo la supervisión de la empresa suministradora. Las personas interesadas deberán acreditar en el Ayuntamiento la suscripción de los contratos y presentar los boletines de instalación eléctrica.
2. Todas las gestiones, así como el coste de las necesidades que las instalaciones tengan para el funcionamiento de los aparatos y de la feria, así como los de las viviendas en materia de instalación eléctrica, serán a cuenta del solicitante.

Artículo 18

1. Las personas adjudicatarias que precisen disponer de una toma de agua de la red de abastecimiento deberán solicitar la misma previa e independientemente.
2. No se podrán instalar tuberías superficiales ni podrán quedar arquetas abiertas o sin tapar en la vía pública. Excepcionalmente, y en aquellos casos en los que no se disponga de toma de agua y desagüe en el propio espacio ocupado, se permitirá la instalación de tuberías superficiales siempre que se cubran y señalicen convenientemente para no dificultar la accesibilidad de las personas en la zona afectada. Queda terminantemente prohibida la manipulación de las válvulas de la red de abastecimiento de agua, que solo puede realizarse por personal autorizado.

Artículo 19

Las personas adjudicatarias deberán acatar y cumplir las indicaciones que realicen los agentes de la Policía Local u otro personal Técnico Municipal para garantizar la seguridad y salubridad del recinto ferial.

Artículo 20

Las personas adjudicatarias deberán proceder al desmontaje de la instalación en el plazo máximo concedido por el Ayuntamiento. El espacio ocupado deberá dejarse en las mismas

condiciones en que se encontraba cuando se produjo la instalación y en todo caso garantizando su seguridad y salubridad.

Artículo 21

Está expresamente prohibido, rebasar los límites del espacio adjudicado sea con la barraca o atracción, sea con elementos adicionales, incluidos los publicitarios. Tampoco podrán invadirse las calles interiores y las zonas de tránsito peatonal. También está expresamente prohibida la instalación de máquinas expendedoras de cualquier tipo de productos sin previa autorización municipal expresa, lo mismo que elementos tipo putching ball o similares.

Artículo 22

1. Las personas adjudicatarias deberán cumplir estrictamente las normas de seguridad e higiene en el trabajo, así como las higiénico-sanitarias relativas a la distribución de alimentos y bebidas cuando sea el caso. En particular, cada instalación deberá disponer de recipientes de suficiente tamaño como para almacenar los residuos que produzcan. La basura será almacenada fuera de la vista del público en la medida de lo posible, hasta su retirada por los servicios de limpieza.
2. Se cuidará especialmente la zona de instalación de viviendas y su entorno, asegurándose de que se mantengan limpios en todo momento.

Artículo 23

1. Queda terminantemente prohibida, en aplicación de lo dispuesto en la Ley 9/2022, de 30 de junio, de protección de los animales domésticos y en la Ley 7/2023, de 28 de marzo, de protección de los derechos y bienestar de los animales, la venta y rifa de toda clase de animales vivos o disecados en el recinto ferial. Asimismo, deberá mantenerse el trato debido con cualquier animal presente en el mismo.
2. Quedan expresamente prohibidos los premios de material pornográfico y todo tipo de cohetes, petardos, pelotas lanza bolas, navajas y similares, así como elementos relacionados con el tabaco y el alcohol.

TÍTULO V

DE LAS NORMAS DE SEGURIDAD

Artículo 24

Las barracas y atracciones de feria deberán reunir los requisitos y condiciones de seguridad, higiene y salubridad que establezca la normativa vigente.

Artículo 25

Las barracas y atracciones de feria deberán cumplir con el DB SI (documento básico de seguridad en caso de incendio) del Código Técnico de la Edificación.

Artículo 26

Las maquinarias, estructuras y atracciones deberán cumplir con lo dispuesto en la Norma UNE-EN 13814:2006 o la que se encuentre en vigor a la fecha de instalación.

Artículo 27

En caso de que alguna de las barracas disponga de cocina a gas deberá ajustarse a lo dispuesto en las Normas Básicas de Instalaciones de Gas y demás normativa de aplicación. Las bombonas de gas no estarán expuestas al sol durante el día o próximas a cualquier foco de calor.

Artículo 28

Está expresamente prohibido el almacenaje próximo a cocinas de embalajes, cajas, cartones y cualquier otro tipo de material inflamable.

TÍTULO VI

DE LAS EMISIONES SONORAS Y LAS ROTULACIONES

Artículo 29

1. Con el objetivo de potenciar la inclusión de niños y niñas con trastornos de espectro autista o con alteraciones neurosensoriales en las fiestas populares, las personas adjudicatarias deberán silenciar la música y todo tipo de sonido (sirenas, bocinas, etc.) de las barracas y atracciones de feria durante unas horas y días establecidos de mutuo acuerdo. En caso de que no haya acuerdo, será el ayuntamiento quien establezca los días y las horas.
2. En el caso de que haya actos dentro del programa de fiestas que resulten incompatibles con la música que provenga del recinto ferial, el Ayuntamiento ordenará bajar el volumen de la música o incluso quitarla mientras duren dichos actos.
3. Con el objetivo de incidir en el uso del euskera, especialmente entre la población infantil y las familias, se deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) Rotulación

Toda la rotulación de los puestos de barracas, atracciones o puestos de venta deberá ser en euskera o en bilingüe (euskera/castellano). En los casos en que se opte por la rotulación bilingüe, se dará prioridad al euskera. En caso de necesitar ayuda para traducir la rotulación al euskera, se podrá contar con la colaboración del servicio de euskera del Ayuntamiento de Eskoriatza.

b) Música

La música emitida será en euskera en un 75%. Además, no se podrán emitir canciones ofensivas con las mujeres, ni con letras que promuevan comportamientos no cívicos. Con el objetivo de facilitar lo recogido en este punto, se ofrecerán varios playlist.

TÍTULO VII

DE LA GESTIÓN DE RESIDUOS

Artículo 30

Las personas adjudicatarias deberán cumplir en lo referente a la gestión de residuos, la normativa de aplicación, tanto en lugar habilitado para las viviendas como en el recinto ferial.

Artículo 31

Todas aquellas actividades que generen como residuo aceite vegetal usado deberán contar con un gestor autorizado para su retirada y gestión. Está expresamente prohibido el abandono o vertido de residuos de esta naturaleza.

Artículo 32

La gestión de residuos peligrosos se atenderá estrictamente a lo dispuesto en la normativa aplicable. El Ayuntamiento retirará cualquier objeto abandonado que obstaculice el tránsito o pueda resultar peligroso para los vecinos y vecinas, siendo de cuenta del propietario o depositante los gastos en que se incurra.

TÍTULO VIII

DE LA CIRCULACIÓN DE VEHÍCULOS EN EL RECINTO Y EN SU ENTORNO

Artículo 33

1. Se prohíbe expresamente el estacionamiento y circulación de vehículos en el recinto ferial. Excepcionalmente, durante los períodos de montaje y desmontaje se permitirá el acceso de los vehículos necesarios para dichas operaciones.

Artículo 34

1. La instalación de caravanas y viviendas móviles por parte de las personas feriantes autorizadas deberá realizarse en el lugar habilitado para ello. Los camiones, turismos y cualquier otro vehículo deberán hacerlo en lugares destinados al aparcamiento de vehículos, cumpliendo las disposiciones del Reglamento General de Circulación y la Ordenanza Municipal de Tráfico.

2. Excepcionalmente, podrá autorizarse a las personas titulares de las instalaciones o barracas autorizadas que no dispongan de domicilio en el municipio el estacionamiento de caravanas-vivienda en el recinto ferial o parcelas anexas, siempre y cuando no cause perjuicios relevantes a las personas usuarias.

3. En cualquiera de los casos, no podrá permanecer en el recinto ninguno de los elementos de tracción precisos para mover los remolques independientes, sino exclusivamente estos.

TÍTULO IX

MEDIDAS CAUTELARES

Artículo 35

Con independencia de los procedimientos sancionadores que correspondan, el Ayuntamiento podrá proceder a la revocación de la autorización concedida y al cierre cautelar de la instalación cuando así lo aconsejen razones de seguridad o salubridad pública. Estas medidas, que requerirán de motivación especialmente detallada, se extenderán hasta que cesen las razones que las determinan.

TÍTULO X

RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 36

1. Las infracciones y sanciones derivadas de la instalación de barracas y/o atracciones de feria en las fiestas de Eskoriatza se regirán por lo establecido en la Ley 10/2015, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, en la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi y en las demás disposiciones aplicables.
2. El Ayuntamiento de Eskoriatza se faculta la posibilidad de penalizar, con la prohibición de entrar en el recinto ferial durante 1 a 3 años, el incumplimiento de cualquiera de las condiciones recogidas en la presente Ordenanza, bien sean en relación a la actividad como en relación a su titular.

DISPOSICIÓN FINAL

Primera: Para lo no previsto en la presente Ordenanza se estará a lo establecido en la normativa local, autonómica o estatal que sea de aplicación.

Segunda: La presente Ordenanza entrará en vigor a los 15 días de su publicación íntegra en el «Boletín Oficial de Gipuzkoa» de conformidad con los artículos 65.2 y 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, permaneciendo en vigor hasta su modificación o derogación expresa.